

BEZEROAREKIKO HARREMANA

Bezeroekin harremanetan jartzeko eta hauek gure lokalera etortzeko, gure kafetegia kanpuseko jendeari aurkeztuko diegu, horretarako panfletoak, eta **kartelak** jarriko ditugu kanpusean zehar.

Kanpuseko ikasle eta langileek aspaldi eskatzen zuten kafetegi berri bat ipintzea horregatik bezeroak lortzea ez da arazo bat izango. Bestalde, **sare sozialetan** kontuak sortuko ditugu hala instagramean nola facebooken. Horrela bezeroek berri guztietaz ohartuko dira eta haiekin komunikatzeko erraztasun gehiago edukiko dugu.

Gure bezeroen artean **ahoz ahokoa** lortuko dugu gure lokalean gustora egotea lortzen badugu. Ikasleen artean hitz egingo dute gure lokala gomendatuz eta hori bezeroak lortzeko bide nagusi bat izango da ere.



Horrez gain, bezeroak mantentzeko eta fidelizatzeko, **txartelatxo** bat egingo dugu, eta, txartel horretan, 10 kafetxiki marrazki egongo dira, kontsumitzerakoan, txartelita zulatu egingo da eta, 10 zulo edukitzerakoan, kafe dohain bat lortuko duzu. Modu honetan bezeroen kontsumitzeko joera errepikatzea espero da.

